Urnietako udala

# 2022EKO URTARRILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE ENERO DE 2022

**Akta zenbakia:** 01/2022
**Bilera data:** 2022-01-25
**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 19:00-19:30
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:** Jorge Segurado Iriondo

**Zinegotziak:**

Mikel Pagola Tolosa
Lucía Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Juan Luis Goikoetxea Benzala
David Rosco Jorge
Ainara De Miguel Berasategui
Nekane Ubillos Cipitria
Ainhoa Jauregi Cabezón
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos Gonzalez

**Idazkaria:**
Xabier de la Mota Vázquez

**Ezin etorria adierazi dute:**
Mikel Artola Pagola
Xabier Yurramendi Garmendia

**Acta nº:** 01/2022
**Fecha:** 25-01-2022
**Tipo de reunión:** Pleno ordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 19:00-19:30
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**

**Alcalde:** Jorge Segurado Iriondo

**Concejales:**

Mikel Pagola Tolosa
Lucía Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Juan Luis Goikoetxea Benzala
David Rosco Jorge
Ainara De Miguel Berasategui
Nekane Ubillos Cipitria
Ainhoa Jauregi Cabezón
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos Gonzalez

**Secretario:**
Xabier de la Mota Vázquez

**Excusan su ausencia**:
Mikel Artola Pagola
Xabier Yurramendi Garmendia

Urnietan, 2022ko urtarrilaren 25an, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 19:00etan, Jorge Segurado Iriondo alkatea lehendakari dutela, ez-ohiko bilera egiteko.

En la villa de Urnieta a 25 de enero de 2022, siendo las 19:00 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Jorge Segurado Iriondo, al objeto de celebrar sesión extraordinaria.

Beharrezko quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

Superado el quórum necesario y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

**AZTERGAIAK:**

1. **2021eko azaroaren 30eko eta abenduaren 16 eta 23ko udalbatzarren aktak onartzea.**

**ORDEN DEL DIA:**

1. **Aprobar las actas de las sesiones plenarias del 30 de noviembre y 16 y 23 de diciembre de 2021.**

# 2022EKO URTARRILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE ENERO DE 2022

2. **Alkatetza eta zinegotzi ordezkarien ebazpenen berri ematea: 1025/2021-1078/2021.**
3. **Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien kontu ematea: 2021eko azaroaren 18, abenduaren 2 eta 16ko bilkurak.**
4. **Euskal Autonomia-erkidegoari eskatzea Diruzain lanpostua gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu bezala klasifikatzea. 2022IORO0003 Esp.**
5. **Etxebizitza tasatuen ordenantza puntualki aldatzeari hasierako onarpena. 2022IORO0002 Esp.**
6. **Galdera-eskariak.**

2. **Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía y de las concejalías delegadas: 1025/2021 al 1078/2021.**
3. **Dar cuenta de los acuerdos tomados en la Junta de Gobierno Local. Sesiones: 18 de noviembre y 2 y 16 de diciembre de 2021.**
4. **Solicitud de clasificación del puesto de trabajo de Tesorería como reservado a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional, a la Comunidad Autónoma Vasca. Exp. 2022IORO0003.**
5. **Aprobación inicial de la Modificación puntual de la ordenanza viviendas tasadas. Exp. 2022IORO0002.**
6. **Ruegos y preguntas.**

**********

**1.- 2021eko azaroaren 30eko, abenduaren 16 eta 23ko udalbatzarren aktak onartzea.**

2021eko azaroaren 30, abenduaren 16 eta 23ko udalbatzarren aktak onartzea proposatzen da.

Udalbatzak bertaratutakoen aho batez onartu du 2021eko azaroaren 30, abenduaren 16 eta 23ko udalbatzarren aktak.

**********

**1.- Aprobar las actas de las sesiones plenarias del 30 de noviembre y 16 y 23 de diciembre de 2021.**

Se propone la aprobación de las actas de las sesiones plenarias del 30 de noviembre y 16 y 23 de diciembre de 2021.

El Pleno ha aprobado por unanimidad de los asistentes las actas de las sesiones plenarias del 30 de noviembre, 16 y 23 de diciembre de 2021.

**********

**2.-Alkatetza eta zinegotzi ordezkarien ebazpenen berri ematea: 1025/2021-1078/2021.**

Berri ematen da.

**2.-Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía y de las concejalías delegadas: 1025/2021 al 1078/2021.**

Se da cuenta.

**********

**3.- Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien kontu ematea: 2021eko azaroaren 18, abenduaren 2 eta 16ko bilkurak.**

**3.- Dar cuenta de los acuerdos tomados en la Junta de Gobierno Local. Sesiones: 18 de noviembre y 2 y 16 de diciembre de 2021.**

# 2022EKO URTARRILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE ENERO DE 2022

Berri ematen da

Se da cuenta.

**4.- Euskal Autonomia-erkidegoari eskatzea Diruzain lanpostua gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu bezala klasifikatzea. 2022IORO0003 Esp.**

**4.- Solicitud de clasificación del puesto de trabajo de Tesorería como reservado a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional, a la Comunidad Autónoma Vasca. Exp. 2022IORO0003.**

Gonzalez jaunak azaldu du gai honekin abstenitu egin zirela, baina ongi pentsatu ondoren, legez derrigorrezkoa denez, atzerapenarekin badator ere, aldeko botoa emango dutela.

El Sr. Gonzalez expone que con este tema se abstuvieron pero que, tras darle una vuelta, dado que es legalmente obligatorio, aunque viene con retraso, votarán a favor.

De Miguel andreak adierazi du kezka dutela postuaren izendaketa aldaketarekin. Edonola ere ez dutela arazorik, eta beharra badago egin dadila, gehiago herritarren zerbitzua hobetuko bada. Hala ere, kontratazioak gehitzen ari direla ikusten dute baina ez dituzte ikusten Zerbitzuak handitzen ari direnik eta herritarren onura handitzen ari denik. Hala ere, legeak hala adierazten badu, puntu konkretu hontan aldeko bozka emango dute.

La Sra. De Miguel manifiesta su preocupación por el cambio de denominación del puesto. No obstante si hay necesidad, que se haga, y más si va a mejorar el servicio de la ciudadanía. Aun así, ven que las contrataciones están aumentando pero no ven que los Servicios ni el beneficio de los ciudadanos esté aumentando. No obstante, si la ley así lo indica, votarán a favor en este punto concreto.

Pagola jaunak argitu du prozedura zein izango den. Lehenengo sailkapena eskatzea, gero RPTa aldatu beharko da, eta gero habilitazio nazionala dutenei eskaintza zabalduko zaie, eta gero hutsik geratuko balitz prozedura ireki bat egingo du Udalak, non baldintzak betetzen dituen edonor aurkeztu daiteke. Bestetik, berrantolaketa bat egiten ari da antolakuntzan, betebehar berriak sortu direlako eta orain arte programekin bete direlako, baina programa horiek bukatu dira eta beharrek Bertan jarraitzen dute. Eta horietako batzuk lanpostu honi egotziko zaizkio. Beraz ez dira lanpostuak handituko, egonkortuko baizik.

El Sr. Pagola aclara cuál va a ser el procedimiento. Solicitar primero la clasificación, luego habrá que cambiar la RPT y luego se realizará la oferta a los habilitados nacionales, y si luego quedara vacante el Ayuntamiento llevará a cabo un procedimiento abierto en el que puede presentarse cualquiera que cumpla los requisitos. Por otro lado, se está llevando a cabo una reorganización en la organización, ya que se han creado nuevas obligaciones que se han cumplido hasta ahora con programas, pero estos programas han finalizado y las necesidades siguen presentes. Y algunas de las necesidades están vinculadas a este puesto. Por lo tanto, no se aumentarán los puestos de trabajo, sino que se estabilizarán.

Gonzalez jaunak azaldu du kontua dela legez behartuta dagoela, gehiago edo gutxiago gustatu ahal zaigula, baina nahitaez bete behar dela. Beste gai bat antolamenduarena da, eta horrekin ez daude ados, ez baita hainbesteko kontrataziorik islatzen, gero sailak gainezka izaten jarraitzeko. Ez datoz bat herritarrei zerbitzua emateko gaitasunarekin.

El Sr. Gonzalez expone que la cuestión es que es un tema obligado por ley, nos puede gustar más o menos, pero es de obligado cumplimiento. Otro tema es el organizativo, con el cual no están de acuerdo, pues no se refleja tanta contratación para luego seguir teniendo los departamentos saturados. No se corresponde los empleados que hay con la capacidad para dar servicio a la ciudadanía.

De Miguel andreak argitzen du legearen egikaritzearen alde egiten dutela, ez daude

La Sra. De Miguel aclara que apuestan por la ejecución de la ley, no están de acuerdo con la

antolaketarekin ados eta egiten den lidergoarekin. Ez daude kontratazioarekin egiten den erabileraren alde.

******

**LEHENA.- AURREKARIAK**

Urnietako Udalaren LLZak ez du jasotzen **diruzaintza lanpostua**, gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu bezala, beharrezkoa den moduan.

**BIGARRENA.- LEGEDI APLIKAGARRIA**

Oinarrizko legeria aplikagarria honako hau da:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea (TAOL).
- Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (TAAIL).
- Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua.

**HIRUGARRENA.- GOGOETA JURIDIKOAK**

I. TAOLen 92. bis artikuluak, TAAILak emandako idazkeran, ezartzen du badaudela, toki-korporazio guztietan, gaikuntza nazionaleko Toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako administrazio-erantzukizuneko nahitaezko funtzio publikoak; funtzio horien artean kontabilitatea, diruzaintza eta diru-bilketa daude.

II. Hori dela eta, TAAIL indarrean jarri ostean, Bigarren motako idazkaritza duten toki-korporazioek, beraz, nahitaez eduki behar dute Diruzaintzako lanpostua, eta gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioek bete behar dute lanpostu hori.

III. Aipatutako TAOLaren 92. bis artikuluaren laugarren atalean bildutako ondorioz, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua onartu zen.

organización y con el liderazgo que se ejerce. No están a favor del uso que se hace de la contratación

******

**PRIMERO.- ANTECEDENTES**

La RPT del Ayuntamiento de Urnieta no contempla el **puesto de tesorería** como un puesto reservado a funcionarios de administración local con habilitación de carácter nacional, tal y como es necesario.

**SEGUNDO.- LEGISLACIÓN APLICABLE**

La legislación básica aplicable es la siguiente:

- Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local (LBRL).
- Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local (LRSAL).
- Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional

**TERCERO.- CONSIDERACIONES JURÍDICAS**

I. El artículo 92 bis LBRL, en la redacción dada por la LRSAL, establece la existencia en todas las corporaciones locales de funciones públicas obligatorias de responsabilidad administrativa reservadas a funcionarios de la Administración Local con habilitación de carácter nacional, entre las que se encuentran la contabilidad, la tesorería y la recaudación.

II. Por ello, tras la entrada en vigor de la LRSAL, las corporaciones locales que ostenten secretarías de segunda categoría están obligadas a disponer de un puesto de Tesorería, que debe ser ocupado por funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional.

III. Como consecuencia de lo recogido en el apartado cuarto del artículo 92 bis de la citada LBRL, se aprobó el Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de administración local con habilitación de carácter nacional.

IV. Errege Dekretu horren 14.1 artikuluan azpimarratzen da idazkaritza bigarren mailakotzat sailkatuta duten toki-korporazioetan - Urnietako Udalaren kasua - Diruzaintza izeneko lanpostu bat egon behar dela, eta lanpostu horrek izango duela diruzaintzari eta diru-bilketari lotutako eginkizunen administrazio-erantzukizuna. Lanpostu hori, aipatu moduan, toki-administrazioko funtzionario batek bete behar du, kontuhartzailetza-diruzaintza azpieskalan maila nazionaleko gaikuntza izango duena.

V. Horri lotuta, 128/2018 Errege Dekretuko seigarren xedapen iragankorreko bigarren apartatuan ezartzen da idazkaritza bigarren mailakotzat sailkatuta duten toki-korporazioetan, baldin eta errege dekretu hau indarrean jartzen denean diruzaintzaren lanpostua toki-administrazioko eta nazio mailako gaikuntzadun funtzionarioen eskalakoentzat gordeta ez badago, lanpostuen zerrenda aldatu beharko dela eta dagokien autonomia-erkidegoari eskatu beharko diotela lanpostu hori toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetzeko, Kontuhartzailetza-Diruzaintza azpieskalan maila nazionaleko gaikuntzarekin.

VI. Horrenbestez, araudi horren arabera nahitaezkoa da Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eskatzea Urnietako Udalaren Diruzaintza lanpostua Toki Administrazioko gaikuntza nazionaleko funtzionarioentzat gordetako lanpostu bezala sailkatzea, kontuhartzailetza-diruzaintza azpieskalan, eta, sailkapen hori burutu eta gero, Osoko Bilkurak lanpostu hori sortzen duen LLZren aldaketa onartzea.

Bozketara jo da, honako emaitzarekin:

Alde: 11
Urnietako Eusko Abertzaleak: 6
Urnietako Eh Bildu: 3
Udal talde sozialista: 2

Kontra: 0

IV. En el artículo 14.1 del citado Real Decreto se subraya la necesidad de que en las corporaciones locales en las que la secretaría esté clasificada como de segunda categoría - caso del Ayuntamiento de Urnieta - exista un puesto de trabajo denominado Tesorería, que será administrativamente responsable de las funciones de tesorería y recaudación. Este puesto de trabajo deberá ser cubierto, según se ha expuesto, por un funcionario de administración local con habilitación de nivel nacional en la subescala de Intervención-Tesorería.

V. En este sendito, el apartado segundo de la disposición transitoria sexta del Real Decreto 128/2018 establece que en las corporaciones locales en las que la secretaría esté clasificada como de segundo nivel, cuando a la entrada en vigor de este Real Decreto el puesto de tesorería no esté reservado a escalas de funcionarios con habilitación de carácter nacional, se deberá modificar la relación de puestos de trabajo y solicitar a la correspondiente Comunidad Autónoma la reserva de dicho puesto de trabajo para funcionarios de la Administración local con habilitación de carácter nacional, en la subescala de Intervención-Tesorería.

VI. En consecuencia, conforme a dicha normativa es preceptivo que el Pleno del Ayuntamiento solicite a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Gobierno Vasco la clasificación del puesto de trabajo de Tesorería del Ayuntamiento de Urnieta como puesto reservado a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional, en la subescala intervención-tesorería, y, una vez realizada dicha clasificación, que el Pleno apruebe la modificación de la RPT que crea dicho puesto.

Se ha procedido a la votación, con el siguiente resultado:

A favor: 11
Urnietako Eusko Abertzaleak: 6
Urnietako Eh Bildu: 3
Grupo municipal socialista: 2

En contra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, ezarritako lege tramitazioa jarraituta, eta ikusirik Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak 2022ko urtarrilaren 17an egindako irizpena, Udalbatzarrak aho batez honako hau

**ERABAKI DU:**

**Bakarra.-** Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eskatzea **Urnietako Udalaren Diruzaintzako lanpostua Kontuhartzailetza-Diruzaintza Azpieskalako Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu gisa sailkatzea**.

Sailkapen hori burutu eta gero, Osoko Bilkurak lanpostu hori sortzen duen LLZren aldaketa onartu beharko du.

**5.- Etxebizitza tasatuen ordenantza puntualki aldatzeari hasierako onarpena. 2022IORO0002 Esp.**

Gonzalez jaunak azaldu du baiezko botoa eman zutela, baina buelta asko eman ondoren, ez dutela argi. Beraz, abstenitu egingo dira. Izan ere, azalpenetako bat da sustatzaileek ez dutela garatzen gutxiago irabazten dutelako, eta horrek pentsarazten die eraikitzaileak irabazten badu galtzen duena erosten duena dela. Argi dute ez dela etxebizitza erosi behar duenarentzako onura. Eta ziurgabetasun horren aurrean abstenitu egingo dira. Positiboa izan daiteke gainerako udalerrien maila berean egotea.

De Miguel andreak azaldu du azalpen korapilatsua ikusi zutela batzordean. Eta orain ere nahaspila hori buruan dute. Matematikek ez die ematen. Ikusten dutena da 1,5eko tasa aplikatuko litzatekeela, eta Jaurlaritzak 1,67. Beraz hor igoera gehigarri bat dago, zifra handiak ematen dituena. Eta karga hori erosleek jasango dituzte eta ez dute uste horren xalo planteatu behar denik. Horregatik abstenitu egingo dira.

Pagola jaunak argitu du etxebizitza promoziotan promozio publiko eta pribatuak daude. Orain 1,5eko

Abstención: 0

En consecuencia, realizada la tramitación legalmente establecida y visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Organización de 17 de enero 2022, el Pleno ha adoptado por unanimidad el siguiente

**ACUERDO:**

**Único**.- Solicitar a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco **la clasificación del puesto de Tesorería del Ayuntamiento de Urnieta, como puesto reservado a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional, subescala Intervención-Tesorería**.

Una vez realizada dicha clasificación, el Pleno deberá aprobar la modificación de la RPT que cree dicho puesto.

**5.- Aprobación inicial de la Modificación puntual de la ordenanza viviendas tasadas.
Exp. 2022IORO0002.**

El Sr. Gonzalez expone que votaron afirmativamente, pero que tras darle muchas vueltas, no lo tienen claro. Por lo tanto se van a abstener. Ya que una de las explicaciones es que los promotores no desarrollan porque ganan menos, lo cual les lleva a la reflexión de que si gana el constructor el que pierde es el que compra. Lo que tienen claro es que no es un beneficio para el que va a comprar la vivienda. Y ante esa incertidumbre se abstendrán. Puede ser positivo situarse en el mismo nivel que el resto de municipios.

La Sra. De Miguel explica que vieron en la comisión una explicación complicada. Y ahora también tienen ese lío en la cabeza. Las matemáticas no dan. Lo que ven es que se aplicaría una tasa de 1,5 y el Gobierno de 1,67, por lo que ahí hay un incremento adicional que da cifras elevadas. Y ese gravamen lo soportarán los compradores y no creen que haya que plantearlo con tanta sencillez. Por eso se abstendrán.

El Sr. Pagola aclara que en las promociones de la viviendas hay promociones públicas y privadas.

indize hori promozio publikotan aplikatu daiteke. Pribatuetan, promotoreek aukera dute Udal ordenantza aplikatzeko edo bestela Jaurlaritzaren ordenantzara joateko, eta azken horretan 1,67a aplikatzen da. Beraz promotoreek zuzenean 1,67 hori aplikatzen dute. Egia da milaka euro batzuk badirala, baina ez 1,5 edo 1,7 horren artekoak. Baina garrantzitsuena zen promotoreek udalak bultzatutako ordenantzak aplikatzea, eta horrela urnietar gehiago onuradun gertatzeko etxebizitza tasatuetan. Diru aldetik baina gehiago, hori da helburua.

Ahora ese índice de 1,5 es aplicable a las promociones públicas. En las privadas, los promotores tienen la posibilidad de aplicar la Ordenanza Municipal o acudir a la Ordenanza del Gobierno, en la que se aplica el 1,67. Por lo tanto, los promotores aplican directamente ese 1,67. Es cierto que ya son unos miles de euros, pero no entre ese 1,5 o 1,7. Lo importante era que las promotoras aplicaran las ordenanzas impulsadas por el ayuntamiento y así resultar más beneficiados los urnietarras en viviendas tasadas. Ese el es objetivo, más que el económico.

Gonzalez jaunak argitu du justu horixe dela ez dutena ulertzen.

El Sr. Gonzalez aclara que eso es justo lo que no llegan a entender.

De Miguel andreak zifrak atera dituztela dio. Eta 1000 euro gehitzeak arrakala handitzen du. Espekulazioa emango ez bada ere, ez dute diskurtsoa ulertzen eta ez dutelako koherentzian guztiz bat egiten. Beraiek urnietar oro lehenestea nahi lukete, eta prezioak igotzen badira, prezioak urnietar batzuentzat izango dira. Arrakala antzurik hartzen duten orotan abstentziora joko dute.

La señora De Miguel dice que han sacado cuentas. Y un aumento de 1000 euros agranda la grieta. Aunque no se va a dar especulación, no entienden el discurso y en coherencia, no están de acuerdo. Ellos querrían que primara todo urnietarra y si los precios suben, los precios será en beneficio de algunos urnietarras. En todo aquello que agrande la grieta recurrirán a la abstención.

Pagola jaunak gehitu du ez bada egiten, Ermotegin bezala tasatuak Eusko Jaurlaritzaren irizpideekin egingo direla, eta irizpide horien arabera urnietar oro beste edozein kide bezela sartuko dira zozketan. Hori da hobetu nahi dena.

El Sr. Pagola añade que si no se hace, las tasadas como en Ermotegi se harán con criterios del Gobierno Vasco, según los cuales todos los urnietarras entrarán en el sorteo como cualquier otro miembro. Eso es lo que se quiere mejorar.

******

**LEHENA.- Aurrekariak eta justifikazioa**

I. 2008ko urriaren 1ean, Urnietako Udal Etxebizitza Tasatua Arautzeko Ordenantza argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

II. 6. artikuluan ezartzen dira araubide bereziko udal-etxebizitza tasatuen betekizun espezifikoak (babes ofizialeko etxebizitza tasatuak ordeztu ditzaketenak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako gutxieneko estandarrak betetzeko). Baldintza horien artean, etxebizitza-tipologia horren gehieneko salmenta-prezioa dago, eta honako hau ezartzen du: "*Nolanahi ere, ezingo dute gainditu 1,5 indizea, udal behin-behineko kalifikazioa eskuratzen den unean indarrean den Erregimen*

******

**PRIMERO.- Antecedentes y justificación**:

I. Con fecha 1 de octubre de 2008 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la Ordenanza Reguladora de la Vivienda Tasada Municipal de Urnieta.

II. Su artículo 6 fija los requisitos específicos de las Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial (aquéllas que pueden sustituir a las Viviendas de Protección Oficial Tasadas a efectos de cumplimiento de los estándares mínimos establecidos en la Ley 2 /2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco). Entre estos requisitos figura el precio máximo de venta de dicha tipología de viviendas, estableciendo que, “*en todo caso, no podrán superar el índice 1,5 respecto al precio máximo*

*Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzen gehieneko prezioari dagokionez*".

III. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak indize hori 1.7ra arte handitzeko aukera ematen duela kontuan hartuta, muga txikiagoa finkatzeak, praktikan, sustatzaileek, beren exekuzio pribatuan, udal-etxebizitza tasatuen ordez araubide autonomikoko babes ofizialeko etxebizitzak egiteko aukera ekar dezake, eta, ondorioz, udalerriak eremu horretan esku-hartzeko ahalmena galduko luke.

IV. Era berean, higiezinen sustatzaileek, oro har, errentagarritasun handiagoa dakarten eremuak aukeratzen dituztenez beren ekimen pribatuan, hirigintza-garapenean zain dauden bizitegi-sektoreek udal-etxebizitza tasatuak izatea nahi bada, desabantaila lehiakorra da inguruko udalerriekiko, horiek 1,7ko edo inguruko gehieneko muga aurreikusita baitute.

V. Bestalde, Urnietako HAPOk bizitegitarako hiru eremu urbanizagarri garatzea aurreikusten du (HIE 32 – "Babilonia", HIE 33 – Trankatx, eta HIE 31 – Azkarate); errealitatea izanik ez direla betetzen ari plan horretan urbanizazioa egiteko aurreikusitako epeak.

VI. Horregatik guztiagatik, komeni da aipatutako ordenantza aldatzea, alde batetik, Udal-Etxebizitza Tasatuaren figura sustatzeko, araubide tasatu autonomikoko babes ofizialeko etxebizitzaren ordez, eta, bestetik, garatzeko dauden eremuak legezko parametroen barruan ahalik eta erakargarrienak izan daitezen, Urnieta inguruko udalerriekiko berdintasun-parametroetan kokatuz.

VII. 2022ko urtarrilaren 10ean Udal-Idazkariak lege-txostena eman du aplikatu beharreko legeria eta prozedura zaheztuz, eta adieraziz proposatutako aldaketa bat datorrela, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearekin. Era berean, organu eskuduna

*de las Viviendas de Protección Oficial de Régimen General vigente en el momento de obtención de la Calificación Provisional municipal*".

III. Teniendo en cuenta que la Ley 2 /2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, **permite ampliar dicho índice hasta el 1'7**, la fijación de un límite menor puede suponer, en la práctica, que los promotores, en su ejecución privada, opten por la ejecución de viviendas de protección oficial de régimen tasado autonómico en lugar de Vivienda Tasada Municipal, con la consiguiente pérdida por parte del municipio de su capacidad de intervención en este ámbito.

IV. Igualmente, dado que con carácter general los promotores inmobiliarios optan en su iniciativa privada por aquéllos ámbitos que les suponen una mayor rentabilidad, si se pretende que los sectores residenciales pendientes de desarrollo urbanístiico cuenten con Vivienda Tasada Municipal, supone una desventaja competitiva frente a los municipios del entorno, que tienen previsto un límite máximo del o cercano al 1,7.

V. Por otra parte, el PGOU de Urnieta prevé el desarrollo de tres ámbitos urbanizables residenciales (A.I.U. 32 – "Babilonia", A.I.U.33 - Trankatx, y A.I.U.31 – Azkarate), siendo la realidad el hecho de que no se están cumpliendo los plazos previstos en dicho plan para la ejecución de su urbanización.

VI. Por todo ello, es conveniente modificar la ordenanza de referencia para, por una parte, fomentar la figura de la Vivienda Tasada Municipal frente a la de la vivienda de protección oficial de régimen tasado autonómico, así como adoptar todas aquellas medidas que hagan los ámbitos pendientes de desarrollo lo más atractivos posible dentro de los parámetros legales, situando así a Urnieta en parámetros de igualdad con los municipios del entorno.

VII. Con fecha 10 de enero de 2022 el Secretario Municipal ha emitido informe jurídico sobre la legislación aplicable y el procedimiento a seguir, considerando que la modificación propuesta es conforme, en particular, con lo previsto en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco. Asimismo,

Osoko Bilkura dela adierazi du, gehiengo arruntez.

indica que el órgano competente para la adopción del acuerdo es el Pleno, por mayoría simple.

**BIGARRENA. Zuzenbideko hausnarketak**

Proposatutakoa gauzatzeko, udal eskumenekoa, Udal-ordenantza bat aldatu behar da, legez beherako lerruneko xedapen administratiboa delako, gure udalerriari orokorrean aplikatzekoa.

Araudizko ekimen horren eraginak eta ondoreak zenbatestea eta baloratzea ez da beharrezkoa izan, gaur egungo nahiz bihar-etziko gastuak edo diru-sarrerak ukitzen ez dituen heinean.

2021eko urriaren 18ko Udal-idazkariaren legezkotasun txostenean zehaztu bezela, bideratzeko prozedura TAOALeko 49. eta 70. artikuluetan oro har ezarritakoa izango da; eta ez da beharrezkoa ikusten urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1. artikuluan xedatzen den kontsulta publikoa egitea – hautazkoa kasu honetan-.

Hori horrela, ordenantza honen aldaketaren hasierako onarpenaren proposamena dagokion batzorde informatzailearen irizpenera jartzeko izapideak beteta, geratzen diren tramiteak hauek izango lirateke:

- Informazio Batzordeak irizpena igorri ondoren, udalbatzak onestea gehiengo soilarekin.
- Jendaurreko informazioa eta interesdunen entzunaldia, 30 egunetan, gutxienez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Hasierako onespenari buruzko erabakia udaleko web-atarian argitaratuko da, ediktuen taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Nahi bada, Legearen arabera aitortuta dauden erakundeei eta elkarteei iritzia eskatzea, betiere erakunde edo elkarte horiek araudizko ekimenak ukitutako legezko eskubiderik nahiz interesik duten pertsonak ordezkatzen badituzte eta berorien helburuek xedearekin zuzeneko loturarik badute.

- Epe barruan aurkeztu diren erreklamazio eta

**SEGUNDO.- Consideraciones jurídicas**

Para llevar a efecto lo pretendido y que es de competencia municipal, se requiere la modificación de una Ordenanza municipal, por ser una disposición administrativa de rango inferior a la Ley, de aplicación general en este Municipio.

No ha sido precisa la cuantificación y valoración de las repercusiones y efectos de esta iniciativa reglamentaria, por no afectar a los gastos o ingresos públicos presentes o futuros.

El procedimiento para su tramitación es el establecido con carácter general en los arts. 49 y 70 LRBRL, no estimando necesaria la consulta púbica previa – en este caso potestativa- prevista en el artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, tal y como se reflejaba en el informe de legalidad inicial suscrito por el secretario de la corporación.

Siendo ello así, y habiéndose cumplido los trámites previstos en dichos artículos para proceder a someter a dictamen la propuesta de aprobación inicial de la modificación de Ordenanza objeto del expediente, los trámites pendientes serían:

- Previo dictamen de la Comisión Informativa, aprobación inicial por el Pleno, por mayoría simple.
- Información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de 30 días para la presentación de reclamaciones y sugerencias. El acuerdo de aprobación inicial se publicará en el portal web del Ayuntamiento, en el Tablón de Edictos y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.
- Potestativamente, solicitud de la opinión de las organizaciones o asociaciones reconocidas por ley que agrupen o representen a las personas cuyos derechos o intereses legítimos se vean afectados por la iniciativa reglamentaria y cuyos fines guarden relación directa con su objeto.

- Resolución de todas las reclamaciones y

iradokizun guztiak ebatzi, eta udalbatzak behin betiko onestea. Hasierako erabakian ezar daiteke erreklamaziorik aurkeztu ezean, ordenantza edo araudia behin betiko onetsitzat joko dela, zuzenean. Halakoetan, Idazkaritzak ziurtagiri bat igorriko du hasierako onespen hori behin betiko bihurtu dela egiaztatzeko.

sugerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por el Pleno. En el acuerdo inicial se puede establecer que, si no se presentan reclamaciones, la Ordenanza o Reglamento se considerará aprobada definitivamente de forma automática, a estos efectos se extenderá por Secretaría la certificación acreditativa de la elevación a definitiva de la aprobación inicial.

- Ordenantzaren edo araudiaren testu osoak udaleko web-atarian, ediktuen taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Ordenantzak, baita hirigintza-planen arauen artikuluak ere, eta horien gaineko erabakiak, euren behin betiko onespena toki-erakundeen eskumenekoa bada, udaleko web-atarian, ediktuen taulan eta probintziako edo autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira. Gainera, ez dira indarrean sartuko harik eta testua osorik argitaratu arte eta TAOALeko 65.2. artikuluan ezarritako epea igaro arte; hau da, Estatuko nahiz autonomia erkidegoko administrazioek udalak igorri behar dien udal-erabakiaren jakinarazpena jaso dutenetik 15 egun igaro arte. Aipatu hamabost eguneko epea zenbatzen hasiko dela estatuko edo autonomiako administrazioak toki-erakundearen erabakiaren berri jasotzen duenetik, hala agintzen baitu AGko 3. Salak ezarritako lege-doktrinak, 2011ko otsailaren 25eko Epaiaren bidez.

- Publicación del acuerdo y texto íntegro de la Ordenanza en el portal web del Ayuntamiento, en el Tablón de Edictos y en el Boletín Oficial de la Provincia. Las ordenanzas, incluidos el articulado de las normas de los planes urbanísticos, así como los acuerdos correspondientes a éstos cuya aprobación definitiva sea competencia de los entes locales, se publicarán en el portal web del Ayuntamiento, en el Tablón de Edictos y en el Boletín Oficial de la Provincia o Comunidad Autónoma y no entrarán en vigor hasta que se haya publicado completamente su texto y haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 LRBRL, es decir, una vez hayan transcurrido 15 días contados desde la recepción por la Administración del Estado y la de las Comunidades Autónomas, de la comunicación del acuerdo municipal que debe remitirles el Ayuntamiento. El citado plazo de quince días se computará a partir de que la Administración estatal o autonómica reciban de la Entidad Local la comunicación del acuerdo, en virtud de la doctrina legal establecida por la Sala 3ª del TS en Sentencia de 25 de febrero de 2011.

Bozketara jo da, honako emaitzarekin:

Se ha procedido a la votación, con el siguiente resultado:

Alde: 6
Urnietako Eusko Abertzaleak: 6

Kontra: 0

Abstentzioa: 5
Urnietako Eh Bildu: 3
Udal talde sozialista: 2

A favor: 6
Urnietako Eusko Abertzaleak: 6

En contra: 0

Abstención: 5
Urnietako Eh Bildu: 3
Grupo municipal socialista: 2

Ondorioz, ezarritako lege tramitazioa jarraituta, eta ikusirik Antolakuntza Batzorde Informatzaileak

En consecuencia, realizada la tramitación legalmente establecida y visto el Dictamen de la Comisión

# 2022EKO URTARRILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE ENERO DE 2022

2022ko urtarrilaren 17an egindako irizpena,Udalbatzarrak gehiengoz honako hau

**ERABAKI DU:**

**Lehena.** Urnietako Udal Etxebizitza Tasatuak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua aldatzea hasierako izaeraz onestea, ondorengo testua izatera pasatuz:

"***6. artikulua. Erregimen BEREZIKO udal etxebizitza tasatuen baldintza zehatzak**.*

*Udal Etxebizitza Tasatuetarako oro har ezarrita dauden baldintzez gain, erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:*

*1. Erregimen Bereziko Udal Etxebizitza Tasatuen (garaje eta trasteleku atxi¬kiak barne) gehieneko salmenta prezioa, Babes Ofizialeko Etxebizitza Tasatuei autonomia erkidegoan aplikagarri zaien arauek ezarriko dute. Nolanahi ere,* ***ezingo dute gainditu 1,7 indizea****, udal Behin-behineko Kalifikazioa eskuratzen den unean, indarrean den Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzen gehieneko prezioari dagokionez.*

*2. Alokairuaz den bezainbatean, erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen urteko errenta, etxebizitza horien gehieneko salmenta prezioaren % 2,5 izango da gehienez.*

*3. Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gehieneko diru sarrera haztatuak, Euskal Autonomia Erkidegoko arautegian jasotakoarekin bat kalkulaturik, ezin dira 1,3 indizea baino handiagoak izan, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean diren gehieneko diru sarrerei dagokienez.*

*4. Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gutxieneko diru sarrera haztatuak ezin dira izan gizarte etxebizitzak (erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak) eskuratzeko ezarrita dauden gehieneko diru sarrerak baino txikiagoak."*

Informativa de Organización de 17 de enero de 2022, el Pleno ha adoptado por mayoría el siguiente

**ACUERDO:**

**Primero.** Aprobar inicialmente la modificación del artículo 6 de la Ordenanza Reguladora de la Vivienda Tasada Municipal de Urnieta, pasando a tener la siguiente redacción:

"***Artículo 6. Requisitos específicos de las viviendas tasadas municipales de Régimen ESPECIAL**.*

*Además de los requisitos establecidos para el conjunto de las Viviendas Tasadas Municipales, las Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial deberán cumplir los siguientes:*

*1.º El precio máximo de venta de las Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial, incluidos sus garajes y trasteros vinculados, será el establecido por la normativa autonómica de aplicación para las Viviendas de Protección Oficial Tasadas. En todo caso,* ***no podrán superar el índice 1,7*** *respecto al precio máximo de las Viviendas de Protección Oficial de Régimen General vigente en el momento de obtención de la Calificación Provisional municipal.*

*2.º En caso de alquiler, la renta anual de las Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial será como máximo el 2'5% del precio máximo de venta de las mismas.*

*3.º Los ingresos máximos ponderados de los beneficiarios de las Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial, calculados conforme a lo dispuesto en la normativa autonómica vasca, no podrán ser superiores al índice 1,3 respecto de los ingresos máximos vigentes para acceder a las Viviendas de Protección Oficial de Régimen General.*

*4.º Los ingresos mínimos ponderados para los beneficiarios de las Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial no podrán ser inferiores a los ingresos máximos establecidos para acceder a las viviendas sociales (Viviendas de Protección Oficial de Régimen Especial)."*

**Bigarrena**. 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita espedientea jendaurreko informazio-aldian jartzea interesdunek espedientea azter dezaten eta bidezkoak derizkioten erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Jendaurreko informazio-aldia igaro ondoren ez balitz erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu, behin betiko onartutzat joko da aipatutako araudiaren aldaketa, erabaki berririk hartzeko beharrik gabe

**6.- Galdera - eskariak.**

Gonzalez jaunak bidearen zuzeneko okupazioari buruzko zalantzak azaldu ditu; izan ere, esan denez, bide hori egin eta erabiliko duten enpresak ordainduko dute. Hori horrela bada, empresa horiek asko erabiliko dutelako izango da, eta ez dakigu ez maiztasunak eta ez zer substantzia erabiliko diren.
Hori esanda, gehien kezkatzen gaituena errepide hori Babiloniako eremua garatu aurretik egitea da. Gogoratu nahi dugu Jaurlaritzak ez zuela ikastetxea hasi nahi, Plana garatu arte itxaron behar zelako, eta, era berean, ez dutela interes handirik 3.000 metro koadroko zuzkidurak garatzeko, Babiloniako eremua garatzen denean egitea baita haien asmoa.

Eta galdera nahitaezkoa da, eta Osoko Bilkuraren egoitza honetan erantzutea gustatuko litzaiguke. Jakin nahi dugu: zer gertatzen da, eta zergatik ez du garatzen Babiloniako 32 HEA? Noiz garatuko da esparru hori? Zergatik egiten da Urnietatik Lasarte-Oriarako lotura-errepidea Babiloniako eremua garatu aurretik?

Bigarren galdera da herritargoko batzordean adinekoen ginmnasiaz galdetu zela, non kuotan azterketa mediku bat sartzen zen eta ez dena egiten ari. Alkateak erantzun zuen kirol-teknikariak azalpenak eman zituela, baina ez dutela uste hori horrela denik, nolanahi ere, egoerak bere horretan jarraitzen duela. Ez bazaie egingo, zergatik kobratzen zaie berdina?

Bestalde, COVID-ziurtagiria aurkeztu behar izateagatik ondoez orokorra dago, baina irakasleak ez du txertorik jaso eta ez du COVID-ziurtagiria aurkeztu behar izan. Azalpen bat nahi dute.

**Segundo**. Someter el expediente a información pública durante un plazo de 30 días hábiles a partir del día siguiente a la publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que las personas interesadas examinen el expediente y presenten las reclamaciones y sugerencias que estimen pertinentes.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación o sugerencia alguna, se tendrá por adoptado definitivamente el acuerdo hasta entonces provisional, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

**6.- Ruegos y preguntas.**

El Sr. Gonzalez expone sus dudas sobre la ocupación directa del vial, vial que según se ha dicho lo van a ejecutar y pagar empresas que van a hacer utilización de la misma. Si eso es así, será porque esas empresas van a usarlo muchísimo, y no sabemos ni que frecuencias ni substancias se van a manejar. Dicho esto, lo que más nos preocupa es que esta carretera se vaya a hacer antes de desarrollar el ámbito de Babilonia. Queremos recordar que el ejecutivo no quería en comenzar el centro educativo por que había que esperar al desarrollo del Plan, como tampoco se muestran muy interesado en desarrollar los 3.000 metros cuadrados dotacionales por que su idea es que se haga cuando se desarrolle el ámbito de Babilonia.
Y la pregunta es obligada, y nos gustaría que fuera contestada en esta sede Plenaria. Queremos saber: ¿Qué pasa, y por que no desarrolla el A.I.U 32 de Babilonia?¿Cuando se va a desarrollar dicho ámbito?¿Por qué se hace la carretera de conexión de Urnieta A Lasarte-Oria antes de desarrollar el ámbito de Babilonia?

La segunda pregunta es que en la comisión de ciudadanía se pregunto por la ginmnasia de las mayores, donde en la cuota entraba un reconocimiento médico, que no se está haciendo. El Alcalde contestó que el técnico de deportes ya dio las explicaciones, lo cual no les consta pero en cualquier caso la situación sigue igual. SI no se les va a hacer, por que se les cobra lo mismo?

Y por otra parte hay un malestar general por tener que presentar el certificado COVID, y sin embargo la profesora no está vacunada y no ha tenido que

# 2022EKO URTARRILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE ENERO DE 2022

De Miguel andreak eskaera bat jaso dutela azaldu du, padroiari buruzko prozedura bati buruz. Erantzuna jaso dute, esaten duena orain dela 2 urte eta 4 hilabete eskaera jaso zela eta antolamenduagatik ez dela erantzun bat ematera iritsi. Etxebizitza horretan bizi diren guztiek konputatu egiten dute adibidez dirulaguntza eskatzeko garaian. Eta udalaren antolamendu ezaren ondorioz, akats bat eman da eta ondorioak izan ditu. Jakin nahiko luke herritar bat Bertan-era etorriko balitz akats batekin, berdin berdin ordaindu beharko lituzken beren betebeharrak. Galdera da ea gobernu taldeak kaltetuarekin hitz egin eta jasan dituen kalte ekonomikoei buruz hitz egiteko gai den.

Alkateak galderak jaso dituela azaldu du, eta hurrengo udalbatzan emango dituela erantzunak.

******

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak amaitutzat eman du ohiko osoko bilkura hau, goian adierazitako eguneko zazpiak eta erdiak direnean, eta nik, Urnietako idazkariak, hala egiaztatu dut, Alkatearen oniritziarekin.

Sin.: Jorge Segurado Iriondo

Alkate-Lehendakaria

presentar el certificado COVID. Quieren una explicación al respecto.

La Sra. De Miguel explica que han recibido una solicitud sobre un procedimiento relativo al padrón. Han recibido la contestación, que dice que hace 2 años y 4 meses se recibió la alegación y que por motivos organizativos no se ha dado una respuesta. Todos los que viven en esa vivienda computan por ejemplo en el momento de solicitar una subvención. Y como consecuencia de la falta de la ordenación municipal, ha habido un error y ese error ha tenido sus consecuencias. Le gustaría saber si un ciudadano viniera a Bertan con una falta, si tendría que pagar sus obligaciones ingualmente. La pregunta es si el equipo de gobierno puede hablar con el afectado y hablar de los perjuicios económicos que ha sufrido.

El Sr. Alcalde explica que ha escuchado las preguntas y que las contestará en el siguiente Pleno.

******

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno ordinario, siendo las siete y media horas en la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, Secretario de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Fdo. Xabier de la Mota Vázquez

El Secretario

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | UB_20220125_Ohikoa |
| --- | --- |

Data / Fecha: 2022/02/15 12:49:44
Sinatzailea 1 / Firmante 1: XABIER DE LA MOTA VAZQUEZ - 72512750Y

Data / Fecha: 2022/02/15 13:09:08
Sinatzailea 2 / Firmante 2: JORGE SEGURADO IRIONDO - 34107232A